

1

Euskararekiko pertzepzio soziolinguistikoa nola landu udalerri euskaldunetako ikasleekin: hizkuntza ekologia eta arnasguneen ideia

HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarien VIII. Edizioko
LEHEN SARIA (2015)

Xabi Aizpurua Ugarte
Kazetaria eta euskal filologoa
zozomikote@gmail.com

Sarrera-data: 2015-11-03 / Onartze-data: 2015-11-30

Laburpena. Euskaldunon hizkuntza komunitatearen arnagune nagusiak udalerri euskaldunak izan arren, bertako ikastetxeetan gabezia nabariak daude egungo egoera soziolinguistikoa lantzerako orduan. Bai irakasleen aldetik, bai ikasleen ikuspuntutik, hutsuneak daudela aitortzen dute hezkuntzako eragileek. Lan honen funtsa gabezia horiek identifikatzea eta sailkatzea izan da batetik; baina, bestetik, ikastetxeetako egoera horri irtenbideak proposatu nahi izan zaizkio. Horretarako sortu da hizkuntza ekologia eta arnaguneen ideia lantzeko balio duen irizpide didaktikoen bilduma. • **Hitz gakoak:** *euskara, hezkuntza, hizkuntza ekologia, arnaguneak, udalerri euskaldunak, ikasleak, irakasleak.*

Abstract. Even though Basque-speaking municipalities act as the breathing space of our Basque speech community, there are considerable gaps in the schools located within them when it comes to working on today's sociolinguistic situation. The players in the field of education admit that there are gaps from the perspective of the teachers and the students. The function of this paper has been twofold: to identify and classify these gaps, and to propose solutions to tackle this situation in schools. It has been created for that purpose. • **Key words:** *Basque language, education, language ecology, "lungs", Basque-speaking municipalities, students, teachers.*

ATARIKOA

I

Atzekoz aurrera hasiko dugu artikulu hau, atarira ondorio batzuk ekarrita. Izan ere, udalerri euskaldunetako hainbat ikastetxetan jasotako adibideak aztertuz gero, ondorio argiak atera daitezke: hasteko, ikasleek inertziaz daukate euskararen aldeko jarrera, baina hori argudiatzeko trebetasun nahikorik ez dute. Horrekin lotuta, testuinguru eleanitzean euren berezko hizkuntzaren alde kontzienteki aritzeko gaitasuna falta dute askok. Gainera, normalizazioaren bidean, hizkuntza gutxituen aldeko neurri bereziak hartzea guztiz jokaera zilegia dela ez dakite. Eta, azkenik, joera modernoak euskararekin ez lotzea normala dela uste dute eta ia ez daukate bertako kultur-erreferentzia euskaldunik.

Egoera hori ikusita, pentsatzekoa da hezkuntza sistemak errealitate horri ahalik eta erantzunik egokiena emateko sistemak artikulatu beharko lituzkeela. Eta, hain zuzen ere, lan honek norabide horretan urrats berriak egin nahi ditu elkarrekin estu-estu lotuta doazen bi helburu uztartuta: lehena, udalerri euskaldunetako ikastetxeetan gaitasun soziolinguistikoak nola lantzen diren aztertzea eta ikasleek zein gabezia dituzten jasotzea; eta, bigarrena, egoera horri baliabide didaktikoekin erantzun ahal izateko proposamena egitea hizkuntza ekologiaren eta arnasmuneen ildotik. Labur esanda, egoeraren analisisa egin eta horri erantzuteko tresnak garatu dira.

Beraz, proiektuaren izaera ikusita, esan behar da Euskara eta Euskal Literatura ikasgaiko irakasleen eguneroko lan jardunarekin harreman zuzena duela eta, dauden herrian daudela, irakasleei egunero sortzen zaizkien arazo zehatzetan laguntzea dela helburua. Dena den, lan honen esparrua zedarritu egin behar izan dugu eta udalerri euskaldunetara mugatu da. Herri horietako ikastetxeak izan dira abiapuntu, bidelagun eta helmuga: sorburuko kezka testuinguru horretan kokatzen delako, lanaren garapenean bertako irakasleekin egin delako elkarlana, eta, azken buruan, proposatutako baliabide didaktikoak bertan aplikatzeko pentsatuta daudelako.

Lau irizpide nagusiren gainean osatu da proiektu guztia eta, lanerako orduan, irizpideok zeharkakotasunez jorratzeko apustua egin da. Hona hemen proiektuaren izaera definitzen duten lau ildoak:

- Abiapuntua errealitatean: gaur egungo egoera den bezalakoa dela onartzea eta lanerako abiapuntua hori dela barneratzea, nahiz

Lan honek urrats berriak egin nahi ditu elkarrekin estu-estu lotuta doazen bi helburu uztartuta: lehena, udalerri euskaldunetako ikastetxeetan gaitasun soziolinguistikoak nola lantzen diren aztertzea eta ikasleek zein gabezia dituzten jasotzea; eta, bigarrena, egoera horri baliabide didaktikoekin erantzun ahal izateko proposamena egitea hizkuntza ekologiaren eta arnasmuneen ildotik.

***Ikasleak izango
dira egitasmo
honen
mamiarekin lan
egingo dutenak.
Horregatik,
diskurtsoa euren
mailara ondo
egokitzea,
interesa piztuko
dieten edukiak
pentsatzea eta
euren
errealitatearekin
lotutako
trebetasunak
txertatzea izan
da irizpide
nagusietako bat.***

eta batzuetan beste egoera batzuk egokiagotzat joko liratekeen. Horretarako, indar berezia jarri da ikastetxeekin harremana lantzen eta ahal den laginketarik aberatsena egiten.

- Oinarri teorikoa, sendo: hizkuntza ekologiaren eta arnasguneen ideiarekin inguruan sortutako pentsamendua bildu eta sintetizatu egin da. Ildo horretan, nazioarteko artikuluez gain, arreta berezia jarri da gai hauek nola Euskal Herriratu diren jakiteko orduan. Honela, euskararen biziberritze prozesuan murgilduta dabilzan hainbat eragilek (Soziolinguistika Klusterra, UEMA...) gai hauek nola lantzen dituzten aztertu da.

- Berrikuntza eta eraldaketarako jarrera: pauso bat harago eman nahi duen orok ezinbestekoa du eraldaketarekiko ikuspegi positiboa, eta proiektu honek ere bide hori urratu du. Ikastetxeetan erabiltzen diren soziolinguistika alorreko diskurtsoak berritzeko bide berri bat ireki nahi izan da, batez ere udalerrri euskaldunetako egoeran ardaztuta. Eragileekin izandako harremanen oinarrietako bat berrikuntzaren aldeko jarrera lantzea eta zabaltzea izan da.

- Ikasleen gaitasunak helburu: azken finean, ikasleak izango dira egitasmo honen mamiarekin lan egingo dutenak. Horregatik, diskurtsoa euren mailara ondo egokitzea, interesa piztuko dieten edukiak pentsatzea eta euren errealitatearekin lotutako trebetasunak txertatzea izan da irizpide nagusietako bat. Izan ere, ikasleen gaitasunak lantzea da helburu behinena, eta ibilbide guztiak horren zerbitzura egon behar duela onartzea funtsezkoa da.

Horiek horrela, datozen orriotan honela aurkeztu dira lanaosatzen duten zatiak: lehenik, lan hau aurrera atzeratzeko erabili den metodologia azaldu da, eta bertan zehazten dira informazioa biltzeko eta analizatzeko prozedurak, beste hainbat xehetasunekin batera. Ondoren, ikastetxeetako egoeraren analisitik ateratako emaitzak plazaratu dira, bai ikuspuntu kuantitatibotik bildutako datuak eta bai esparru kualitatiboan jasotakoak ere. Abiapuntu hori hartuta, hurrengo pausoa izan da ikasgeletan erabiltzeko materialarentzat irizpideak finkatzea: batetik, corpus teorikoa arakatu da kontzeptu nagusiak sintetizatzeko; bestetik, aurreko esperientzien bilduma laburra osatu da; eta borobiltzeko, hizkuntza ekologia eta arnasguneen ideia lantzeko zein helburu, gaitasun eta eduki erabiltzea komeni den zehaztu da. Amaieran, proiektuaren ondorioak xehetuta, etorkizunean jorratu beharreko lan-ildoak aipatu dira.

1. METODOLOGIA. NOLA EGIN DA LAN HAU?

I

Abiapuntuko intuizioak eta lanaren iker-galderak

Lan honen abiapuntuan elkarrekin lotuta dauden hiru kezka edo intuizio elkartu ziren. Hasteko eta behin, sumatzen zen soziolinguistikako atalak ez duela pisu esanguratsurik DBHko Euskara eta Euskal Literatura ikasgaiaren barnean. Horrekin zuzenean lotuta dagoen beste kezka bat honakoa zen: DBHko ikasleek gabeziak dituzte euren testuingurua soziolinguistikako ezagutzen bidez interpretatzeko. Azkenik, etorkizunera begiratzen duen intuizioa batu zitzaion aurreko biei: arnaguneen ideia soziolinguistika irakasteko baliagarria izan daiteke udalerri euskaldunen testuinguruan.

Hiru ardatz horiek markatutako lan-esparruan sakontzeko asmoz, iker-galdera orokor batzuk ere izan dira proiektua pizteko ardagai:

- DBHko Euskara eta Euskal Literaturako ikasgaiaren, zer-nola lantzen dira ikasleen gaitasun soziolinguistikoa?
- DBH zikloan, indarrean dagoen 2010eko Curriculum dekretuaren 3. eta 4. helburuak lortzeko (soziolinguistikarekin estuen lotuta daudenak), ekarpenik egin dezake azken urteetan indartzen ari den hizkuntza ekologia?
- Udalerri euskaldunetan bizi diren ikasleen testuinguruan, zein izan liteke gaitasun hauetan sakontzeko modurik egokiena? Beren-beregi doitutako ikuspegi soziolinguistikoa garatu dezakete?

Horiek horrela, lan honek hasiera-hasieratik helburu bat jarri dio bere buruari: diagnosiaren bidez egoera aztertzea eta, ahal den neurrian, ikusitako gabeziei erantzuteko baliabideak sortzea.

Erabilitako metodologia mota

Lan honen lehen zatian garatu den metodologia ikerketa-proiektiboaren erreferentzia esparruan kokatzen da, Hurtadoren definizioaren haritik (Hurtado, 2000) premia zehatz bati erantzutea baita asmoa. Bestalde, proiektu hau nagusiki kualitatiboa dela esan behar da, horixe baita egitasmoaren helmugara iristeko biderik egokiena. Izan ere, proiektu honen funtsa hezkuntzako eragileek egindako balorazioetan eta haiek emandako iritzietan dago, hots, zenbakietara eta kopuruetara ekarri ezin diren kontuak direla gehienetan. Horregatik, metodologia kualitatiboaren bidez, honako behar nagusi hauei modu eraginkorrean erantzun

Hasteko, sumatzen zen soziolinguistikako atalak ez zuela pisu esanguratsurik DBHko Euskara eta Euskal Literatura ikasgaiaren barnean. Eta, horri lotutako intuizioa ere bazegoen: arnaguneen ideia soziolinguistika irakasteko baliagarria izan daiteke udalerri euskaldunen testuinguruan.

**Proiektu honen
funtza
hezkuntzako
eragileek
egindako
balorazioetan eta
haiek emandako
iritzietan dago.**

ahal izan zaie:

- Ikastetxeko funtzionamenduari buruzko informazio sakona lortzea: nola lantzen den gaia, zailtasun zehatzak eta horien arrazoiak.
- Irakasleek egoerari buruz duten pertzepzioa ezagutzea, egungoari buruzko balorazioa eta etorkizunera begira egindako proiektzioak.
- Hezkuntzako eragileek hizkuntza ekologiari eta arnasguneen ideiare buruz egiten duten interpretazioa eta ikerketa esparru horiei buruzko ezagutza zein den jakitea.

Informazioa biltzeko prozedurak

Lan honi dagokion barne-prozedura diseinatzerakoan, argi ikusten zen informazioa biltzeko bi esparru nagusi bereizi behar zirela hasieratik: batetik, gaur egungo egoera zertan den azaltzeko balioko duten informazio iturriak (a), eta, bestetik, irizpide didaktikoak proposatzeko urratsekin lotuta daudenak (b).

a) Egoeraren analisisa egiteko:

—*Analisi kuantitatiboak*: Udalerrirei eta eskualdeari buruzko datu soziolinguistikoak Soziolinguistika Klusterrak UEMA erakundearentzat eginiko ikerketatik jaso dira (Iurrebaso, 2014), eta eskualdeko hezkuntza-mapari dagozkionak, aldiz, eskualdeko Berritzeguneak emandakoak dira.

—*Analisi kualitatiboak*: atal honetan, elkarrizketa erdi-bideratuak egin dira, eta unean uneko inprobisazioari tokia utzi zaio, bakoitzak emateko zeukanari ahalik eta zuku gehien ateratzeko asmoz. Hala eta guztiz ere, atal bakoitzeko galderak berariaz jarritako helburuen norabidean egin dira eta elkarrizketaren barne egiturak ondorengo sei atal nagusi hauek izan ditu: 1) Ikastetxea eta euskararen arteko harreman orokorra. 2) Soziolinguistika curriculumean, lantzeko moduak. 3) Soziolinguistika lantzean, ikasle-irakasleen pertzepzioak. 4) Edukien ezagutza ikasleen artean. 5) Hizkuntza ekologia eta arnasguneen ideia. 6) Baliabide didaktiko egokiak sortzeko irizpideak.

Datu kualitatiboak lortzeko prozedurak honakoak izan dira:

- Banakako elkarrizketa erdi-bideratuak: hiru ikastetxetan irakasle banari eta eskualdeko Berritzegunean Hizkuntza Normalkuntzaren ardura daraman langileari egin zaizkie elkarrizketak.

- Focus group-a: ikastetxe bereko 4 irakasle elkarrekin jarri ziren eztabaida taldean eta bertan partekatu zituzten euren iritzi etabizipenak.
- Aurreko esperientzien laginketa-bilduma egin da, soziolinguistikan sakontzeko eta hizkuntza ekologia dibulгатzeko abiatu diren programak eta ekimenak aztertuta.

b) Proposamen didaktikorako urratsak

— Corpus teorikoaren analisisa: hizkuntza ekologiari eta arnasguneei buruzko teoria eguneratua erreferentziazko artikulua eta liburuetan bilatu da; horrez gain, bestelako baliabideak ere erabili dira (elkarriketak, bideoak...). Oro har, hizkuntzalari eta soziolinguistek egindako lan horietatik eduki nagusiak hustu eta kategorizatu egin dira, gero ikasgelara begira didaktikoki landu beharreko kontzeptuen bilduma bat izateko.

— Aurreko esperientzien bilduma: gai hauek lantzeko ikastetxeetan abiatu diren hainbat ekimen aztertu da, aurreko esperientzien eskarmentutik etekina atera eta aurrera begirako bidea nola sakondu jakiteko.

— Ikasgelako lanketarako irizpideak sortu: egoera nola dagoen ikusita, corpus teorikotik zer hartu behar den erabakita, eta aurreko esperientzieak ezagututa, ikasleekin landu beharreko jarduerak euren curriculum egitura nola antolatu behar duten finkatu da. Horretarako irizpideak finkatu dira helburuak, gaitasunak eta edukiak zehazteko.

— Proposamenaren eztabaida: bidelagun izandako irakasle eta eragileei erakutsi zaie proposamen didaktikoa eta haiek euren iritzia eman dute baliagarritasunari eta egokitasunari buruz. Horretarako, aldeztu aurretik materiala bidali zaie eta, ondoren, aurrez aurreko elkarriketa ireki baten bidez bildu dira proposamenari egindako ekarpenak. Elkarriketek ordu-laurden inguru iraun dute eta idatziz jaso dira emandako aholku eta iritzi nagusiak.

Informazioaren analisirako prozedurak

Bildutako datuak eta edukiak iragazteko orduan, esparru kualitatiboan sakontzeko ahalegin handia egin da. Bai elkarriketa pertsonalek emandako edukia eta bai marko teorikotik jasotako informazioa sailkatu eta kategorizatu egin dira; bestela esanda, eduki horietan bildutako alerik esanguratsu eta azpimarragarrienak zerrendatu egin dira lehenbizi, eta ondoren, elkarrekin zuten zerikusiararen arabera kategoriak sortu dira,

**Hasierako
hipotesietatik
bertatik udalerri
euskaldunei
buruzko
jakin-mina
nabarmentzen
zenez,
Gipuzkoako
eskualde
euskaldun bat
hartu da ikerketa
egin eta
proposamen
didaktikoa
plazaratzeko
lan-eremutzat.**

eduki multzoak. Elkarrizketetan jasotako guztia kategorizatzeko gal-
detegiaren egitura bera erabili da. Aldiz, marko teorikoa hizkuntza
ekologiak darabiltzan kontzeptu ezagunen inguruan ordenatu da.

Bestalde, atal kuantitatiboko datuak aukeratutako eskualdearen ezaugarri
nagusiak marrazteko erabili dira batez ere. Datu soziolinguistikoen
analisia egiterakoan hiru aldagai hartu dira kontuan: herriko euskararen
ezagutza, lehen hizkuntza eta etxeko erabilera. Hala, herrikako kopuruak
batu dira lehenbizi, jarraian eskualde mailako batz besteko datuak
ateratzeko. Horrez gain, eskualdeko hezkuntza paisaiari buruzko datu
kuantitatiboetan honako aldagaiak aztertu dira: ikastetxe kopurua,
izaera publikoa ala itunpekoa duten, eskola handiak ala txikiak diren,
Hizkuntza Normalkuntzako Proiektua badaukaten eta, izanez gero,
zein egitasmo den.

Azterketako parte-hartzaileak

Proiektu hau bideratzeko lan-eremua definitu beharra zegoen, eskura
zeuden baliabideak baino askoz ere gehiago beharko bailirateke udalerri
euskaldunen unibertso osoa barneratuko duen ikerketa orokorra egiteko.
Hasierako hipotesietatik bertatik udalerri euskaldunei buruzko jakin-
mina nabarmentzen zenez, Gipuzkoako eskualde euskaldun bat hartu
da ikerketa egin eta proposamen didaktikoa plazaratzeko lan-eremutzat.
Hona hemen parte-hartzaileei buruzko hainbat datu esanguratsu:

- Euskara irakasten duten zazpi irakasle eta eskualdeko Berritze-
guneko hizkuntza normalizazioaren arduraduna izan dira partaideak,
zortzi lagun guztira.
- Irakasleak hautatzerakoan euren profilak askotarikoak izatea jarri
da helburutzat, bai adin aldetik (33 urte gazteenak eta 60 zaharrenak)
eta bai beste ezaugarriei dagokienean ere: eskarmentu askokoak
eta hasiberriak, ardura postuak izan dituztenak eta halakoetan
egon ez direnak, soziolinguistika diferente bizi eta interpretatzen
dutenak... Honela, soslai desberdinak izateak gaiari modu askotara
begiratzeko aukera eman du.
- Hiru eskola publikotako (tamaina desberdinetakoak: txikienak bi
linea, handienak 5) eta ikastetxe kontzertatu bateko egoerak aztertu
dira; lau ikastetxe guztira.
- DBHko zikloa duten ikastetxeak eskualdeko herri handietan
daude kokatuta eta, horien artean, hiru herri handienetan egin dira
elkarrizketak.

2. EGOERAREN ANALISIA: ZER GERTATZEN DA IKASTETXEETAN?


I

2.1 Analisi kuantitatiboaren emaitzak.

2.1.a: Soziolinguistika ikuspegia: Eskualdeko herri guztiak udalerri euskaldunak direla esan daiteke. Hori baieztatzeko, euskararen ezagutzaren indizean (euskaldunak + ia euskaldunak zati bi) oinarritzen da UEMA erakundea. Langa %70ean jartzen du eta proiektu honetarako ere irizpide hori hartu da kontuan. Hain zuzen ere, ezagutzaren muga hori herri guztiek pasatzen dute ikertutako eskualde honetan. Hona hemen aztertutako hiru aldagaien datuak:

- Ezagutza: Eskualdeko batz bestekoa %81,7 da, EAEko udalerri euskaldunen batz bestekoa 72,3 denean, eta EAEko udalerri guztien ehunekoa %37,2.
- Lehen hizkuntza: Eskualdeko batz bestekoa %71,24 da, EAEko udalerri euskaldunen batz bestekoa %58,4 den bitartean, eta EAEko udalerri guztien ehunekoa %18,8.
- Etxeko hizkuntza: Eskualdeko batz bestekoa %64,27 da, EAEko udalerri euskaldunen batz bestekoa %47,5 denean, eta EAEko udalerri guztien ehunekoa %13,6.


1. GRAFIKOA: Ikerketa egin den eskualdeari buruzko datu soziolinguistiko nagusiak (euskararen ezagutza, lehen hizkuntza eta etxeko erabilera) EAEko udalerri euskaldunetako datuekin eta EAEko datu orokorrekin erkatuta.




2.1.b.: Hezkuntza mapa eta normalizazio proiektuak: eskualdeko hezkuntza esparrua modu honetan antolatuta dago. Ziklo denak kontuan hartuta, guztira 28 ikastetxe daude (19 publiko eta 9 itunpeko). Horietatik,

21 ikastetxetan dago Hizkuntza Normalkuntzarako Proiektua ezarrita. Kontuan hartzekoa da, HNPrík ez daukaten ikastetxeetatik lau *eskola txiki* izendatzen den kategorian sartzen direla, auzo eta herri txikietan kokatuta dauden ikasle gutxiko ikastetxeak baitira. Bestalde, HNPko koordinazioa eskualdeko Berritzegunetik eramaten da; gehienak Eusko Jaurlaritzaren *Ulibarri* proiektuan daude, baina badaude Ikastolen Federazioko *Euskaraz Bizi* egitasmoan sartuta dauden hiru ikastola ere. Hala eta guztiz ere, bai batekoak eta bai bestekoak elkarrekin biltzen dira Berritzeguneko mintegian


2. GRAFIKOA: Ikerketa egin den eskualdeko 28 ikastetxeen izaera: publikoak ala itunpekoak.



3. GRAFIKOA: Ikerketa egin den eskualdeko 28 ikastetxeetatik zenbatek dute Hizkuntza Normalkuntzako Plana.



4. GRAFIKOA: Ikerketa egin den eskualdean, Hizkuntza Normalkuntzako Plana duten 21 ikastetxeak plangintza motaren arabera.



Ikastetxe guztietan egiturazko neurri batzuk hartuta daude hizkuntza normalizazioaren gaia lantzeko (Ulibarri programa, sustapen ekintzak...) eta irakasleek diotenez guztien artean mezu bateratua ematen saiatzen dira.

2.2 Analisi kualitatiboaren emaitzak.

Elkarrizketa guztietan jasotako informazioa transkribatu egin da lehenbizi. Ondoren, galdetegiaren barne egitura ardatz gisa hartuta, taulen bidez kategorizazio prozesua burutu da eduki guztiekin. Bide horretan, proposamen didaktikorako ezinbesteko informazioa modu labur eta ulergarrian jarri da lehen leerroan, baina bere inguruan sortu diren bestelako ideia interesgarri batzuei ere egin zaie lekua. Hori jakinik, eskuratutako emaitza horien ondorio nagusiak honako puntuetan irakur daitezke, galdetegiaren eskema bera jarraituz:

- **2.2.a: Ikastetxea eta euskararekiko harreman orokorra:** Eskualdearen testuinguru soziolinguistikoaren ildotik, ikastetxeak oso euskaldunak direla diote guztiek, bakarrak salbu. Horrekin lotuta, ikastetxe guztietan egiturazko neurri batzuk hartuta daude hizkuntza normalizazioaren gaia lantzeko (Ulibarri programa, sustapen ekintzak,...) eta irakasleek diotenez guztien artean mezu bateratua ematen saiatzen dira. Hala ere, ikastetxe desberdinetako langileak elkarrizketatu direla kontuan izanda eta irakasle bakoitzak gelaren aurrean gaiak aurkezteko eta azaltzeko ikuspegi propioa izaten duenez, diskurtso mailan aldaketak suma daitezke batetik bestera. Irakasleek gehien errepikatu duten mezua honakoa da: ikasleak euskaldunak izan arren, euskara lantzen jarraitu behar dute batuaren bidetik.
- **2.2.b: Soziolinguistika curriculumean, lantzeko moduak:** atal honetan askotariko egoerak azaleratu dira eta ikastetxeen artean

***Ikastetxeen
artean
soziolinguistika
lantzeko modu
bateratu eta
koordinaturik ez
dagoela argi
gelditu da.***

***Ikasleen aldetik
gai hauek
lantzeko ez
dutela aparteko
zailtasunik
ikusten
ondoriozta
daiteke.***

soziolinguistika lantzeko modu bateratu eta koordinaturik ez dagoela argi gelditu da. Baina hori ez da izan ondorio bakarra. Izan ere, euskara irakasleen mintegian gai hauek zer-nolako pisua duten galdetutakoan partaide bakarrak erantzun du garrantzia bereziarekin lantzen dituztela. Alegia, agerikoa da soziolinguistika eta hizkuntz normalkuntzako gaiak ez direla mintegietako ardatz nagusietako bat. Ikastetxeen arteko bateratasun falta dagoela eta eduki hauei garrantzia asko ez zaiela ematen jakinda, ulergarria da elkarriketetan bistaratu den aniztasuna. Besteak beste, euren arteko desberdintasuna ikastetxeek aukeratutako testu-liburuen eraginez ere sortu da; hots, argitaletxe bakoitzak tarte desberdina eskaintzen diolako soziolinguistikari. Aztertutako materialen artean (Ibaizabal, IkasElkar eta Santillana) soziolinguistikako gaiak modu sakonenean lantzen dituen IkasElkar dela ondorioztatu da. Azkenik, ia elkarriketa guztietan nabaritu da irakasle bakoitzak gaiarekiko duen motibazioak eragina duela material osagarria sortu eta lantzerakoan.

• **2.2.c: Soziolinguistika lantzean irakasleen eta ikasleen pertzepzioak:** irakasleen aldetik berriz ere aniztasuna nabari da jarreretan (“konprometituta”, “gustura”, “modu probokatzaillean”). Soziolinguistikako gaiak orokorrean jarrera baikorrarekin lantzeko ahalegina egiten dutela adierazi dute. Bestalde, ikasleen aldetik gai hauek lantzeko ez dutela aparteko zailtasunik ikusten ondoriozta daiteke. Alegia, ikasleek gai hauek lantzean ez dute jartzen eragozpen berezirik. Azkenik, azpimarragarria da ia irakasle guztiek aipatu izana ia gela guztietan egoten direla ikasle bakan batzuk “motibatuta” eta “kontzientziatuta” azaltzen direnak hizkuntza zapalkuntzarekin eta hizkuntza eskubideekin.

• **2.2.d: Edukien ezagutza ikasleen artean:** atal honetan elkarriketa guztietako emaitzak bat datoz eta agerian gelditu da soziolinguistikako oinarritzko edukiak ez dituela menderatzen DBHko bigarren zikloko ikasleen gehiengoak. Adina, inguru hurbila soilik ezagutzea edo interes falta dira aipatutako arrazoi nagusiak. Gabeziak dituzte Euskal Herrian euskararen ezagutza eta erabilera erreala zein den jakiteko orduan, baita hizkuntza gutxitua dela interpretatzeko garaian ere. Hala ere, udalerri euskaldunetatik kanpo euskaldunen egoera desberdina dela nolabait intuitzean dute ikasleek, ordura arteko bizi-eskarmentuak hori ondorioztatzeko lain erreferentzia ematen dielako.

• **2.2.e: Hizkuntza ekologia eta arnaguneak:** soziolinguistikako teoria marko honen diskurtsoa eta mamia ez dago barneratuta aztertutako hezkuntza eremuan. Salbuespenak salbuespen, oro har,

azaleko definizioak eman dituzte irakasleek, eta gehiengoak ez da gai izan hizkuntza ekologiaren eta arnasguneen ideiak garbi azaltzeko. Beraz, esan daiteke alor horretan formakuntza premia dagoela, baldin eta eduki horiek transmititzeko norabidea hartu nahi bada. Alabaina, behin kontzeptuak azalpen bidez argitu zaizkienean, guztiak bat datoz zera adierazterakoan: bai hizkuntza ekologiaren marko teorikoa eta bai arnasguneen ideia ere baliagarriak izan daitezkeela soziolinguistikako gaiak ikasgelan lantzeko. Izan ere, euren ikastetxeak, herriak eta eskualdea bera ere arnasgune gisa definitu daitezkeela esatean ados daude partaide guztiak. Horregatik udalerri euskaldunetako ikasleek bi kontzeptu hauen bidetik ikuspegi soziolinguistiko propioa gara dezaketela uste dute, testuingurura ondo egokitzen diren ideia baliagarriak direla baitiote.

• **2.2.f: Baliabide didaktiko egokiak sortzeko bidean:** elkarrizketen zati honetan proposamen didaktikoaren ezaugarriak buruzko galderak egin zaizkie. Batetik, gehiengoaren iritziz hizkuntza ekologiaren eta arnasguneen ideiak DBHko bigarren zikloan lantzeko modukoak dira; guztiek aitortzen dute DBH4 maila egokia dela, eta DBH3 mailarekin bakar batek plazaratu du desadostasuna. Batxiler garaia, adinez nagusiagoak direnez, egoki ikusi dute guztiek. Bestalde, baliabide didaktikoen egitura hizpide hartutakoan, hiruzpalau partaidek aipatu dute nahiago luketela “dosi txikietan” irakasteko zerbait, eta ez unitate edo sekuentzia didaktiko trinko bat. Gainontzekoek ez dute inolako iradokizunik egin, ez egitura baten ez bestearen alde. Azkenik, gaiak lantzeko jardueren ezaugarriak aipatzerakoan honakoak azpimarratu eta errepikatu dituzte: laburrak izatea ez aspertzeko, ikus-entzunezkoak sartzea arreta eta interesa areagotzeko, ikaslearen eguneroko bizimoduarekin zerikusia duen ikuspegi praktikoa txertatzea beharrezkoa dela, eta metodologia aldetik talde txikiak eta praktika parte-hartzaileak sustatu behar direla. Ildo horretan, udalerri euskaldunetako testuingurura egokitzen den diskurtsoa eta pentsamoldea eraikitzeko premia ere nabarmendu dute.

Bai hizkuntza ekologiaren marko teorikoa eta bai arnasguneen ideia ere baliagarriak izan daitezke soziolinguistikako gaiak ikasgelan lantzeko.

Gehiengoaren iritziz hizkuntza ekologiaren eta arnasguneen ideiak DBHko bigarren zikloan lantzeko modukoak dira.

3. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA: NOLA ERANTZUN IDENTIFIKATUTAKO BEHARREI?

I

3.1 Oinarri teorikoaren analisisa eta sintesia

“Miresgarria”. Erreseina batean hitz horrekin izan zen definitua Einar Haugen hizkuntzalariak 1972an argitaratu zuen *The Ecology of Languages* liburua. Bertan, Haugenek lehen aldiz erabili zuen ‘hizkuntz ekologia’

**Hizkuntza
ekologiak
ukipenean
dauden
hizkuntzen
arteko elkar-
eragina ikertzen
du eta baita
hizkuntzek euren
ingurumenarekin
duten harremana
ere. Baina
harago ere
badoa, izan ere
hizkuntza
ekologiak bere
gain hartzen du
hizkuntzen
egoeraren
aurrean erantzun
beharra; beraz, ez
da soilik
aztertzeke modu
bat, baizik eta
erantzuteke
modu bat ere
bada (Uranga,
2011).**

adiera, proiektu honen ardatz nagusietako bat izango dena, eta garai hartako teoretikari berrikuntza handia ekarri zuena. Izan ere, ordura arte elkarrekin harremanik ez zuten bi harreman-sare zirela ulertzen zen: batetik, espezieek eta biologia-ekosistemek osatzen zutena zegoen, eta, bestetik, hizkuntzak eta gizarte-egiturak biltzen zituen. Lan hartan, ordea, Haugenek bi harreman-sare horien arteko antzekotasunak agerian utzi zituen eta lotura kontzeptual horri ‘hizkuntza ekologia’ deitu zion (Haugen, 1972). Goian aipatutako erreseina akademikoaren bidez ekarpen teoriko hura “miresgarritzat” jo zuen ikerlaria Joshua A. Fishman izan zen (Fishman, 1973, 1078. o.), bi hamarkada beranduago arnasmuneen ildo teorikoa lehenbizikoz plazaratuko zuen hizkuntzalari emankorra (Fishman, 1991). Hain zuzen ere, arnasmuneen teoria izango da esku-artean duzun lan honen bigarren esparru kontzeptuala. Hori horrela, ondorengo lerroen xedea izango da bai hizkuntza ekologiaren eta bai arnasmuneen ideien oinarri teorikoak aletzea eta, jarraian, ikasgeletarako bidea egin beharko luketen ideia nagusien entresaka egitea.

Hasteko, Haugenek bere *The Ecology of Languages* lanean hizkuntza ekologiari zein definizio eman zion gogoratuko dugu: “Hizkuntza-ekologia hizkuntza orok bere ingurunearekin dituen elkar eraginen azterketa da” (Haugen, 1972).

Ordutik gaurdaino ikuspuntu ugari garatu dituzte askotariko hizkuntzalariak eta horrek “corpus teoriko plurala eta oraindik garatzen ari dena” sortu du (Marko eta Uranga, 2014, 76. o.). Dena den, badago hizkuntza ekologiari buruzko oinarritzko ikuspegi partekatua eta honakoa da: hizkuntzen prozesu sozialek inguruarekin duten harremana aztertzen duen esparrua da hizkuntza ekologia eta horretarako ekologiaren metafora darabil, alegia, izaki bizidunak bezala hizkuntzak ere elkarrekin bizi dira eta elkarri eragiten diote hizkuntzarteko eremu geografiko batean (Vork; Alwin, 2014). Ildo horretan, hizkuntza ekologiak ukipenean dauden hizkuntzen arteko elkar-eragina ikertzen du eta baita hizkuntzek euren ingurumenarekin duten harremana ere. Baina harago ere badoa, izan ere hizkuntza ekologiak bere gain hartzen du hizkuntzen egoeraren aurrean erantzun beharra; beraz, ez da soilik aztertzeke modu bat, baizik eta erantzuteke modu bat ere bada (Uranga, 2011).

Koska bat sakonduz, hizkuntza ekologiak bere egin dituen kontzeptu nagusiak xehetzea ere komeni da, esaterako aniztasuna, iraunkortasuna edo subsidiaritatea. Hala, ekologian gertatzen den modu berean, munduko hizkuntza aniztasuna modu positiboan baloratzen da hizkuntza

ekologian eta horixe da garapen teoriko guztiaren oinarri-oinarrian dagoen pentsamendua. Gainera, hizkuntzalariekin bat egiten dute Unesco bezalako mundu mailako erakundeek kultur eta hizkuntza eskubideak defendatzeko adierazpenak norabide berean plazaratzen dituztenean (Unesco, 2001, 4. o.), kultur aniztasuna gizakiarentzat “nahitaezkoa” dela baieztatuz, “aniztasun biologikoa izaki bizidunentzat den bezainbeste”. Bestalde, aniztasun biak elkartuta doazela frogatzeko ikerketak egiten ari dira, “bioaniztasunaren galerarekin batera kultur eta hizkuntz aniztasuna ere galdu egin baita munduko lurralde askotan (...) Bizitzaren aniztasuna osotasunean ulertzeko biologia, kultura eta hizkuntza aniztasuna hartu behar dira kontuan”. (Unesco, 2003, 5. o.).

Logikoa denez, aniztasuna onuragarria baldin bada, aniztasun hori mantentzea eta zaintzea beharrezkoa izango da hizkuntzen alorrean ere. Bastardasen arabera, gizarteak “bioaniztasuna baloratzen baldin badu eta bere alde borrokatzen baldin badu”, horrek hizkuntzalariei argudioak ematen dizkie “hizkuntzen ordezkatzeko eta desagertze prozesu azkarren aurrean neurri eraginkorrak hartu behar direla esateko” (Bastardas, 2009, 3. o.). Izan ere, hizkuntza guztiek balio berbera dute, bakoitzak mundua interpretatzeko bere modu propioa baitu. Horregatik, planetako hizkuntz aniztasuna mantentzeko alerta oihua beharrezkoa da (Barrieras, Granados, Vilaró, Junyent, 2000). Aniztasunaren galera horri buruz, mundu mailako txosten ofizialek mezu argia zabaltzen dute azken hamarkadetan: “hizkuntz aniztasuna munduan zehar erabat murriztuko dela aurreikus dezakegu” bezalako baieztapenak edo “hizkuntzen homogeneizazioak gizateria guztiari eragingo dio, ez hizkuntza galtzen duen komunitateari soilik” dioten oharrak irakurri daitezke Unescoren munduko hizkuntzen txostenean (Amorrortu, Barreña, Idiazabal, Izagirre, Ortega, Uranga, 2004, 14. o.). Mundu mailatik Europako egoerara etorritik, aipatu beharra dago 60 hizkuntza inguru daudela aitortza ofizialik gabe Europar Batasuneko estatuen baitan, eta “ia guztiek egin behar diete aurre irauteko eta euren hizkuntza garatzeko dituzten zailtasunei” (UNPO, 2015, 1. o.).

Horren guztiaren irtenbidetzat hizkuntza ekologiak iraunkortasuna proposatzen du. Nola, ordea? Indar, hiltun kopuru eta egitura soziopolitiko desberdineko hizkuntzak ukipenean daudenean, nola ziurtatu guztien iraupena? Batez ere, ukipen egoera horren ondorioz ahultze bidean eta egoera gutxiagotuan dagoen hizkuntzari, nola bideratu etorkizun orekatua? Belen Urangaren iritziz, hizkuntza ekologiaren “helburua ekosistemaren oinarritzko oreka mantentzeko neurriak hartu beharraz

**Arnasmuneek
ezinbestekotzat
jotzen diren
unetik beretik,
horiek mantendu
eta elikatze
beharraren
aldarria ere
ulertu behar da
Fishman teorian,
eta ideia
horrekin
bete-bete bat
egiten du
hizkuntz
ekologiak
egoerari
erantzuna
emateko
justifikatzen
duen
zilegitasunak.
Ildo beretik doa
Bastardasek
dioena ere:
hizkuntza
komunitatearen
iraupenerako
funtsezkoa
izango da
esku-hartze
politikoa.**

ohartzea da, hizkuntza baten iraunkortasuna ez baitago soilik hizkuntza horren baitan, baizik eta ekosistema soziokulturalaren baitan” (Uranga, 2011, 38. o.).

Zentzu horretan, gutxituta dauden hizkuntzak beren orekara eramateko bidean, 2015eko martxoan hil berri den Joshua A. Fishman hizkuntzalariak teorizazio eta proposamen sendoa egin zuen *Reversing Language Shift* liburuan (Fishman, 1991). Hizkuntzak betetzen dituen funtzioetan oinarritzen zen eskala bat proposatu zuen hizkuntza baten normalizazio maila neurtzeko, eta, aldi berean, funtzio horiek betetze bidean jar daitezkeen neurri zehatzak proposatu zituen. Lan horretan, aurrerago esan bezala, arnasmuneen ideia plazaratu zuen Fishmanek, euskarazko ordaina Mikel Zalbidek plazaratu zuen, eta Soziolinguistika Eskuliburuak honela aurkezten du kontzeptua modu ulergarrian (Larrea; Bilbao, 2010):

- Hizkuntzaren arnasmuneak: Fishmanek *breathing spaces* deitzen ditu. Hizkuntza gutxitua indarberritu dadin ezinbestekoa da hizkuntza hori nagusi izango den gune geografikoak egotea. Arnasmune horiek ez dira ghettoak izango, are gutxiago gaur egungo gizarte globalizatuan isolatuta egotea ia-ia ezinezkoa delako. Gune horietako biztanle gehienek dakite hizkuntza gutxituan hitz egiten, hizkuntza hori normaltasunez erabiltzeko baldintzak daude eta belaunaldiz belaunaldiko transmisioa naturaltasunez gertatzen da.

Beraz, arnasmuneak ezinbestekotzat jotzen diren unetik beretik, horiek mantendu eta elikatze beharraren aldarria ere ulertu behar da Fishmanen teorian, eta ideia horrekin bete-bete bat egiten du hizkuntz ekologiak egoerari erantzuna emateko justifikatzen duen zilegitasunak. Ildo beretik doa Bastardasen teorizazioa ere. Honek dioenez, hizkuntza komunitatearen iraupenerako funtsezkoa izango da esku-hartze politikoa (Bastardas, 2005). Zentzu horretan, hartu beharreko neurrien helburuetako bat hiztunek euren berezko hizkuntzari buruzko irudia eta hizkuntzari emandako balioak aski positiboak izatea eta egoerak orekatuta irautea dela adierazten du Bastardasek. Lan berean proposatzen duen neurrietako bat subsidiaritate printzipioa deitu zaiona da: berezko hizkuntzan egin daitezkeen funtzioak ez egitea hizkuntza hegemonikoan, eta, hala, hizkuntzari funtzio multzo garrantzitsu bat emanda beharrezkoa eta erabilgarria izango da hiztunentzat, eta berezko transmisioa bermatuko dute. Nahiz eta funtzio guzti-guztiak ezin egin, beren hizkuntzarako funtzio nahikoa izango dituzte erreserbatuta, horrek funtzionalitatea eta interesa emango dio hizkuntzari, beharrezko bihurtzen du etorkizunera begira,

eta modu horretan, egoera linguistiko orekatua iraunkorra bihurtuko litzatekeela esanez borobiltzen du ideia hizkuntzalari katalanak.

Behin oinarri teoriko orokorrak finkatuta, euskararen eremuari buruzko gogoetak ekarri nahi dira atal honen amaieran. Izan ere, gaur egun, euskaldunen hizkuntz komunitatea hizkuntz ekologiaren eta arnaguneen teoriak barneratzen eta zabaltzen ari da. Hori horrela, euskararen arnagunetzat jotzen dira udalerri euskaldunak, hots, euskararen indizean gutxienez biztanleen %70era iristen diren herriak, eta euren garrantzia estrategikoa nabarmentzen da “esparru guztietan normal erabiltzearen ondorioz hizkuntza berez indarberritzen delako, eta, honela, hizkuntz normalizazioaren eredu direlako” (Seguro, 2015). Udalari horietako asko Udalari Euskaldunen Mankomunitatea UEMAn biltzen dira eta hizkuntz normalizazioan partekatutako interesak elkarrekin lantzen dituzte. Aipatzekoa da, UEMAn biltzen diren udalak euskarari ahalik eta funtzio gehien ematen ahalegintzen direla, subsidiariorotasun printzipioaren bidetik, eta hizkuntz ekologiaren teoriak ezagutu aurretik ere, “erabakien eta eguneroko jardun naturalaren bidez, hizkuntz ekosistema bizi baten praktika garatu dutela” (Marko; Uranga, 2014, 79. o.).

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren *Euskara XXI* txosten estrategikoko ere jasotzen du arnaguneen garrantzia: “Arnagune horiek zaindu, sortu eta, ahal balitz, hedatu ezean, alferrik izango da, seguruenera, gainerako ahalegin oro. Horrenbestez, lehentasunezko trataera garbia eman beharko zaie euskararen arnaguneei XXI. mende hasierako hizkuntza politikan”. Txosten berean esaten da “arautzea ahulenaren alde” egin behar dela, eta aurretik aipatutakoen ildo berean, “nolabaiteko konpartimentazio funtzionalik gabe, ez dagoela biziraupenik” (Eusko Jaurlaritza, 2009, 29. o.). Norabide horretan, euskararen arnaguneak erdiguneak kokatu beharrekoak direla deritza Mikel Zalbide euskaltzainak ere: “Kontzentrazio demolinguistiko aktiboari aparteko atentzioa jarri behar diogu: askok askotan euskaraz egitea da kontua, ez euskaraz zerbait jakitea; ezinbesteko ikergune izan behar du arnaguneak arnagune izaten jarraituko badu. Baita arnaguneetan erdarak/erdarek izan beharreko lekua argitzea eta mugatzea ere” (Zalbide, 2014).

Marko teoriko hori guztia gainbegiratu ondoren, ikasgelara eraman beharreko kontzeptu nagusiak honakoak direla ondorioztatu da:

- Metafora ekologikoa, hizkuntzetara ekarria.
- Hizkuntzen aniztasuna eta homogeneizazio globala.
- Iraunkortasuna eta neurri zuzentzaileen zilegitasuna.

Bastardasek proposatzen duen neurrietako bat subsidiaritate printzipioa deitu zaiona da: berezko hizkuntzan egin daitezkeen funtzioak ez egitea hizkuntza hegemonikoan, eta, hala, hizkuntzari funtzio multzo garrantzitsu bat emanda beharrezkoa eta erabilgarria izango da hiztunentzat, eta berezko transmisioa bermatuko dute.

**Gaur egun,
euskaldunen
hizkuntz
komunitatea
hizkuntz
ekologiaren eta
arnasguneen
teoriak
barneratzen eta
zabaltzen ari da.
Hori horrela,
euskarararen
arnasgunetzat
jotzen dira
udalerri
euskaldunak.**

- Arnasguneen definizioa.
- Arnasguneetako hiztun aktiboen garrantzia hizkuntza normalizazioan.

Beraz, edukia erabat laburbilduz honela sintetizatu daiteke ikasgelarako mezua: hizkuntza ekologia hizkuntzen arteko harremanak aztertzen ditu eta gainera desoreka egoerei erantzun nahi die. Horretarako, aniztasuna balioetsiz, hizkuntzen iraunkortasuna du helburu, eta, bide horretan, ahulenaren aldeko neurriak hartzeari beharrezko eta zilegi deritza. Hizkuntza indarberritze horretan, arnasguneak ezinbestekoak dira eta, euskararen kasuan, rol hori udalerri euskaldunek betetzen dute neurri handian. Beraz, udalerri horietako herritarrek ahalduz eta aktibatzea beharrezkoa da, hizkuntza komunitate osoaren iraunkortasuna luzaro bermatu nahi bada.

3.2 Aurreko esperientzien analisi laburra

Hizkuntza ekologiaren eta arnasguneen ideiaz baliaturik, udalerri euskaldunetako ikasleei erreminta soziolinguistikoak ematea da lan honen helburua. Bai Euskal Herrian eta bai kanpoan, aurretik ere izan dira norabide horretan garatutako esperientziak eta, ondorengo lerrotan, ekimen azpimarragarrien analisi edo aipamen laburra egingo da, praktikara eramandako erreferentzia bilduma osatzeko asmoz.

a) *Guia didàctica de la diversitat lingüística*: Herrialde Katalanetatik datorren gida didaktiko hau bideratu duen taldea GELA deiturikoa izan da (Grup D'Estudis de Llengües Amenaçades). 2000. urteko lan honetan, hizkuntza aniztasuna lantzeko baliabide sorta bat ematen zaio irakasleari. DBHrako prestatuta dator eta jardueren helburuak, jorratzen diren kontzeptu nagusiei buruzko argibideak emateaz gain, ikasleekin landu beharreko jarrera eta balioak aztertzen ditu modu sakonean. Barne egituraren ardatz nagusiak kontinenteka antolatuta dauzka gidak (Europako hizkuntzak, Asiakoak, Afrikakoak, Ozeaniakoak eta Amerikakoak), baina tokian tokiko egoeraren berri emateaz gain, beste gai batzuk lantzeko ere aprobeztatzen dute unitate bakoitza: estatuen eta hizkuntzen muga desberdintasuna, hizkuntza ofizialak eta aitortza gabekoak, hizkuntza kolonizatzaileen ondorioak,... Kontinenteen ondoren datozen azken hiru atalak, hizkuntza eta kulturari, hizkuntzen aurreiritziei eta idazkeraren garrantziari buruzkoak dira.

b) Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza – UNESCO: Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Nazio Batuetako Hamarkada (2005-2014) izeneko

ekimenaren baitan, Unesco erakundeak iraunkortasunaren ikuspegi guztiak lantzen dituen proiektu didaktikoa garatu zuen eta material guztia sarean jarrita dago; euskarazko bertsioa Unesco Etxearen web-gunean aurki daiteke. Proiektuak bost dimentsio ematen dizkio iraunkortasunari: hezkuntzarena, ingurumenekoa, gizartekoa, ekonomikoa eta politikoa; bakoitzak azpiatal desberdinak ditu, eta esparru zehatz bakoitzerako liburuxka bana dago eskuragarri. Gizartearen dimentsioari dagokion atalean, bada kultur-aniztasunari eskainitako adarra, eta hizkuntzen gaia bertan jorratzen da. Kultur-aniztasunaren liburuxkak ez du ariketarik proposatzen, eduki interesgarriak dakartza modu labur, ulergarri eta erakargarrian: kultur-aniztasuna historian, independentzia eta autonomia kritikoa, munduko hizkuntzen aniztasunak duen arriskua, kontserbazioa eta aldaketa, txikitasunaren balioa fenomeno globalen aurrean,... Azkenik, kultura eta hizkuntzen iraunkortasuna berma dadin gako batzuk ematen ditu.

c) *EkoLinguA* solas-jokoa: 2015eko apirilean aurkeztu dute DiKoma (Diskurtsoa-Komunitatea-Ahalduntzea) proiektuaren emaitza izan den *EkoLinguA* solas-jokoa. Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Ikaskuntza dira sustatzaile nagusiak, baina beste hainbat erakunderekin aritu dira elkarlanean, beti ere helburu argia jarrita: hizkuntza-komunitatea ahalduntzea eta trinkotzea, eta, horretarako, herritarrekin hizkuntza ekologian oinarritutako diskurtsoa lantzea. Solas-joko honek partaideak elkarrekin hizketan jartzen ditu eta Europar Batasunaren babesarekin sortu zen Play&Decide metodologia hartzen du oinarritzat. Partaideak taldeka biltzen dira eta hizkuntza gutxitua indarberritzeko bidean oinarritzko diren kontzeptuak, argibideak, galderak eta erronkak lantzen dituzte. *EkoLinguA* solas-jokoak eztabaidarako eta gogoeta kolektiborako aukera ematen du. Baliabidea sortzeko fase esperimentalean Bermeoko, Errenteriako, Oñatiko eta Zumaiako herritarrek hartu dute parte.

d) Arnaguneen tailerra: UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak azken urteetan herriz herri tailerrak eman izan ditu arnaguneen ideia zabaltzeko eta herritarrak normalizazio linguistikoaren bidean aktibatzeke asmoz. 2014an, helduentzako tailer hori egokitu eta institutuko ikasleentzat prestatu zuten. Hala, esperientzia pilotu moduan lau ikasgelari eman zitzairen launa orduko tailerra. Bertan, lehenbizi, arnaguneei buruzko bideo dibulгатibo bat erakutsi zitzairen, eta, jarraian, euren herria arnagunea ote zen hausnartu zuten. Tailer hauen helburua, ikasleek euren errealitate soziolinguistikoaz jabetzea zen batetik, eta, eguneroko bizimoduan dituzten hizkuntza ohiturak identifikatu ondoren, haien

**Hizkuntza
indarberritze
horretan,
arnaguneak
ezinbestekoak
dira eta,
euskararen
kasuan, rol hori
udalerri
euskaldunek
betetzen dute
neurri handian.
Beraz, udalerri
horietako
herritarrak
ahalduntzea eta
aktibatzea
beharrezkoa da.**

**Soziolinguistikari
lotutako helburu
kurrikular
guztiak aski
irekiak dira,
interpretaziorako
bidea ematen
dutenak, eta bai
ikastetxeari eta
bai irakasleari
lanketan
sakontzeko
aukera zabaltzen
dietenak.**

arrazoiak bilatu zituzten bestetik. Azkenik, euren jarrerak aktibatzeke dekalogoak prestatu zituzten. Zentzu horretan, talde txikietako metodologiaren bidez, udalerrri euskaldunetako ikasleengan eragin nahi izan zuten, hizkuntz komunitatearen arnagune izateagatik paper garrantzitsua jokatzeko dutela azpimarratuz.

3.3 Gaiaren mugak erreferentziazko curriculum dokumentuetan

Proiektu hau gauzatu denean, EAEn indarrean dagoen curriculum 2010ean onartutakoa da eta hori erabili da erreferentzia nagusi bezala. Dena den, soziolinguistika lantzerako orduan, muga eta desegokitasun batzuk identifika dakizkioke. Lehenik eta behin, 2007ko dekretuko 3. helburuak “hizkuntza normalizazioarekiko konpromiso aktiboa garatzea” jasotzen zuen, eta zati hori kendu egin zuten 2010eko dekretua idazterakoan. Hain zuzen ere, azken horretan, hizkuntz ekologiak lantzen duen “egoerari erantzuteko beharra” ez da lehen bezain nabarmen ikusten. Bestalde, aurrekoarekin lotuta, 3. helburuak dio ikasleek gai izan behar dutela “gure errealtate elebiduna” interpretatzeko. Alabaina, inkesta soziolinguistikoetako datuek (Iurrebaso, 2014) argi uzten dute EAEko errealtatea diglosikoa dela, eta ez elebiduna, nahiz eta bi hizkuntza ofizial izan. Bi kontu horiek, nolabait, ez diote egiturazko oinarri sendorik ematen proiektu honetan hizkuntz ekologiak egiten duen analisiari eta arnaguneen ideiak ahaldu nahi dituen jarrera aktiboiei.

Halarik ere, egiturazko oinarri sendoak idatziz jasota ez egoteak ez du esan nahi bidea irekita ez dagoenik. Izan ere, soziolinguistikari lotutako helburu kurrikular guztiak aski irekiak dira, interpretaziorako bidea ematen dutenak, eta bai ikastetxeari eta bai irakasleari lanketan sakontzeko aukera zabaltzen dietenak. Proiektu honen helburua horixe da, 2010eko curriculumari sendotasuna gehitzea oinarritzko interpretazio soziolinguistikoan, eta, bestalde, hortik aurrera egin behar den edukien eta gaitasunen lanketan ildo berriak landu eta sakontzea hizkuntza ekologiaren eta arnagunen ideien bidetik.

3.4 Aplikazio praktikorako irizpideak

Ikasgeletan erabiltzeko proposamen didaktiko honek ikasleen gaitasun soziolinguistikoetan eragin nahi du eta horretara bideratuta daude baliabide guztiak. Xehetasunetan sartu aurretik, ordea, irakurleari jakinarazi nahi diogu artikuluko honetan aurkituko duena proposamen didaktikoaren laburpena soilik dela eta ez direla azalduko hemen jardura guztien

zehaztapenak banan-banan. Funtsekarri da hona eta gainontzeko xehetasunak *Euskararekiko pertzepzio soziolinguistikoa nola landu udalerrri euskaldunetako ikasleekin: hizkuntza ekologia eta arnasguneen ideia* izenburua duen Master Amaierako Lanean aurki daiteke, 2015eko uztailean EHUn defendatu zen proiektuan, hain zuzen.

3.4.1 Zeharkako irizpideak

Ikastetxeetarako baliabideak lantzeko orduan erreferentziazat *Proposamen didaktikoak egiteko orientabideak* (Eusko Jaurlaritza, 2013) liburua hartu da. Aurretik, ordea, komenigarria da proposamen honek zeharka landu dituen irizpideak aipatzea, gaur egungo eskola sisteman ezinbesteko bihurtu diren balioak baitira:

- Hizkuntzaren ikuspegi sozio-komunikatiboa: hizkuntza komunikaziorako tresna dela ulertzen da, testuinguru sozio-kultural batean erabiltzen dena. Beraz, ekosistema sozial horretako kide diren heinean, ikasleak eragile aktibotzat hartu dira eta ikuspegi hori etengabe landu behar da.
- Eleaniztasuna eta kulturartekotasuna: euskaldunen hizkuntz komunitatea mendeetan egon da beste hizkuntzekin ukipenean, baina azken bi hamarkadetan bezalako eleaniztasunik eta kulturantzutasunik ez du inoiz ezagutu. Fenomeno sozial hori modu positiboan aintzatesten da lan honetan, kulturarteko harremanak lantzea eta elkar ezagutzea bide emankorra izango delako gizarte kohesionatu eta justuagoa lortzeko.
- Motibazioa eta benetakotasuna: ikaslearengan interesa piztea ere lehentasuna da eta horretarako bakoitzak bizi duen errealitatearekin lotura egiten saiatzen dira jardura asko. Gainera, taldekako metodologiak eta dinamiken formatu aniztasunak hori lortzen laguntzen du.
- Prozesu izaera: soziolinguistika ikuspegia garatzea eta ingurua interpretatzeko gaitasunak lantzea ibilbide luzea da. Horregatik, emaitza konkretuari baino gehiago prozesuari begiratu nahi zaio proposamen didaktiko honetan, txori-bistarekin ebaluazioa egokiagoa izango baita.

Behin horiek azalduta, ondorengo lerroetan irakur daitezke prestatutako baliabide didaktikoen helburuak eta gaitasunak, landuko diren edukiak, erabiliko den metodologiari buruzko xehetasunak eta, azkenik, ebaluazio irizpideak.

**Baliabide
didaktikoen
koadernoaren
helburua
ikasleen
gaitasunetan
aurrerapausoak
ematea da.
Gaitasun horiek
antolatzerako
orduan, lehenik,
indarrean
dagoen
curriculumean
agertzen diren
helburuak
zerrendatu dira.**

3.4.2 Helburuak eta gaitasunak

Lehenago aipatu bezala, baliabide didaktikoen koadernoaren helburua ikasleen gaitasunetan aurrerapausoak ematea da. Gaitasun horiek antolatzerako orduan, lehenik, indarrean dagoen curriculumean agertzen diren helburuak zerrendatu dira, proposamenaren izaera soziolinguistikoarekin zerikusia dutenak, hain zuzen. Bigarrenik, hizkuntza ekologiarekin eta arnasguneen ideiarekin lotura duten gaitasun eta helburuak ipini dira, neurri batean zehatzagoak direnak aurrekoak baino, baina lan honen mamiarentzat funtsezko izaera dutenak. Hori azalduta, hona hemen baliabide didaktiko hauekin landuko diren gaitasunak.

EAEko 97/2010 DEKRETUari, martxoaren 30ekoari lotzen zaizkion helburuak:

Soziolinguistikaren oinarritzko ezagutzen laguntzaz, gure errealitate elebiduna ezagutzea eta interpretatzea, euskararen erabilera arrunta bermatzeko.

- Soziolinguistikako oinarritzko ezagutzak kontuan hartuz, elea-niztasunaren eta kulturaaniztasunaren dibertsitatea ezagutzea eta interpretatzea, hizkuntza-aniztasuna lortzeko bide positibo gisa; dibertsitate hori kultura-aberastasun gisa balioetsiko da.
- Hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea, gizarteko eta kulturako hainbat testuingurutan behar bezala komunikatzeko aukera ematen duten estrategiak hartzeko; horrela, balio-judizioa eta era guztietako aurreiritziak sortzen dituzten hizkuntza estereotipoak saihestuko dira.
- Testuak ulertzeko eta sortzeko prozedurak kontuan hartuz, erlazioan dauden hizkuntzen sistemei buruz hausnartzea, horietako bakoitza behar bezala, koherentziaz eta zuzen erabiltzeko eta transferentzia negatiboak saihesteko.
- Hizkuntza erabiltzeko era askotako eremuetatik jasotako diskurtso idatziak eta ahozkoak ulertzea eta ikuspegi kritikoaz interpretatzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.
- Ahoz eta idatziz, esan-idatziak egoki, koherentziaz eta zuzen adierazteko eta solasteko gai izatea, errespetuzko eta lankidetzarako jarrera hartuz; hau da, hainbat komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta hizkuntza-arauak kontuan izan behar dira, komunikazio-premia bakoitzari eraginkortasunez erantzuteko.

Bestalde, baliabide didaktikoen koadernoak espreski landutako gaitasunak hauek dira:

- Hizkuntza ekologiaren metafora erabiliz, inguruko hizkuntzen arteko harremanak ulertzea.
- Euskararen biziberritze prozesuaz jabetzea eta prozesu hori onuragarritzat jotzea gizarte osoarentzat. Era berean, hizkuntza normalizazioarekiko konpromiso aktiboa garatzea.
- Hizkuntzen aniztasuna eta iraunkortasuna ulertu eta modu positiboan baloratzea. Gai hori Euskal Herriko testuinguru interpretatzea.
- Hizkuntzen galerari eta iraunkortasun orekatuari buruzko ikuspegi kritikoa lantzea.
- Garapen sozial, ekonomiko eta kulturean ikuspegi globala barneratzea: globaltasunak tokikotasunean eragiten duela, eta alderantziz, tokiko erabakiek globalki eragin dezaketela.
- Euskararen arnaguneak zer diren ulertzea eta udalerri euskaldunek funtzio hori betetzen dutela konturatzea. Horrekin lotuta, berezko hizkuntzaren ezaugarriez jabetzea eta subsidiaritate kontzeptua ulertzea ere bai.

Edukiak ere bi multzo handitan banatu dira. Lehenbizi, indarrean dagoen curriculumari atxikitzen zaizkionak, eta ondoren, osagarri moduan espreski landutakoak.

3.4.3 Edukiak

Helburu eta gaitasunekin egin bezala, edukiak ere bi multzo handitan banatu dira. Lehenbizi, indarrean dagoen curriculumari atxikitzen zaizkionak, eta ondoren, osagarri moduan espreski landutakoak.

EAEko 97/2010 DEKRETUari, martxoaren 30ekoari lotzen zaizkion helburuak, DBH4 mailan:

- Ikasgelan, ikastetxean eta inguruan hitz egiten diren hainbat hizkuntzatan sortutako testuak irakurtzea eta entzutea, egungo euskal gizartearen eleaniztasun-egoera konplexuaz jabetzeko.
- Hizkuntzen arteko ukipen-egoeren ondorioz sortzen diren zenbait fenomeno (gehiengoaren hizkuntza, hiltun gutxiko hizkuntza, hizkuntza gutxitua, nazioarteko hizkuntza frankoa, elebitasuna, diglosia, hizkuntza-ordezkapena...) eta hizkuntzei nahiz hiltunei erreferentzia egiten dieten oinarritzko kontzeptuak (ama-hizkuntza, eleanitza, elebakarra, elebiduna...) ezagutzea; horretarako, hizkuntza bakoitzak inguruan duen garrantziari behatu eta gai horiei buruzko ahozko testuak eta testu idatziak aztertuko dira, eredueta oinarrituz.
- Diagnosia eginez eta barneratutako ezagutzak erabiliz, inguruko egoera soziolinguistikoa hautematea.
- Hizkuntza bat desagertu, indartu eta zabalaraz dezaketen zenbait faktore (historikoak, gizartekoak eta politikoak) ezagutzea eta horiek ikuspegi kritikotik balioestea

- Hizkuntzei buruzko aurreiritziak izatearen edo horien agerpenen ondorioak ezagutzea eta ikuspegi kritikoak balioestea, ikaslea norberaren jarrerarekiko iritzi kritikoak garatuz joan dadin.
- Hizkuntzak garatzeko, sustatzeko eta normalizatzeko erakundeak ezagutzea.
- Hizkuntza desberdinen aldeko jarrera positiboak garatzea, eta, bereziki, euskararen berreskurapen-prozesuaren aldekoa. Horretarako, euskara erabiltzeko lotura afektibo positiboak sustatuko dira.

Horiez gain, honako eduki hauek ere landu dira baliabideen koaderno honetan:

- Berezko hizkuntzaren eta hizkuntza ofizialaren arteko desberdintasunei buruzko hausnarketa.
- Ekologiatik datozen kontzeptuak (aniztasuna, ekosistema, iraunkortasunerako neurriak...) hizkuntzarekin duten lotura.
- Hizkuntzaren arnaguneak oro har, eta euskararenak zehazki, ezagutu eta balioetsi.
- Garapen globalizatua eta hizkuntza gutxituen galera euskal kulturatik landu duten sorkuntza lanak ezagutu.
- Euskal Herriko kultura eta hizkuntza aniztasuna identifikatu gaur egun.
- Hizkuntzen arteko gatazkak, estres linguistikoa eta hizkuntza gutxituetako hiztunaren ahalduntzea.

4. ONDORIOAK: ZEIN DIRA ETORKIZUNEKO LAN-ILDOAK?

I

Behin honaino iritsita, lan honen ondorio nagusiak plazaratzeko unea dela esan daiteke. Ibilbidearen hasieran kezka eta galdera batzuei erantzuna topatzeko gogo zegoen eta, urratsez urrats, itaun guztiei norabidea argitu zaiela ondoriozta liteke. Esaterako, hasierako hiru kezkak errealitatearekin lotura handia dutela erakutsi du ikerketa lanak:

- Soziolinguistikak ez du pisu esanguratsurik ikastetxe gehienetan. Gainera, ez materiala, ez diskurtsoa, ez mintegian eman beharreko garrantzia ez daude bateratuta eskualde mailan. Nahiz eta ikertu diren udalerrri euskaldunotako testuinguru soziolinguistikoek elkarren antza handia izan, hezkuntza sistemak ez ditu ikasleek beharrezko dituzten gaitasun soziolinguistikoak modu koordinatuan lantzen. Berritzeguneko mintegitik txori-bistaren ikuspegia lantzeko ahalegina egiten dute, baina oraindik badago zeregina norabide horretan.

- Udalerrri euskaldunetako ikasleek gabezia nabarmenak dituzte euren testuingurua behar bezala interpretatzeko. Hizkuntza gutxituaren egoera ezezaguna zaie, arnasguneetako herritarrek izatearen kontzientziarik ez dute, eta neurri handi batean euskara naturaltasunez bizi dutenez, ez diote hizkuntzaren inguruko gogoetari tarte handirik eskaintzen.
- Udalerrri euskaldunak euskararen arnasguneak direla dioen ideia baliagarritzat jo dute hezkuntza arloko eragileek. Euren ustez, herritako testuinguruarekin bat egiten duen diskurtsoa arnasguneena da eta, ikasleen gaitasunak eta jarrerak indartzeko bidean, lagungarria izan daitekeelakoan daude.

Bestalde, proiektu honi heldu zitzaionean, hiru galdera jarri ziren mahai gainean, eta egitasmoak aurrera egin ahala, zalantza horientzako ere erantzunak zedarritu dira:

- Euskara eta Euskal Literatura ikasgaiari soziolinguistikako gaitasunak nola lantzen diren labur erantzutea nahiko korapilatsua gerta daiteke, kezken atalean adierazitako egoera dela medio. Argi gelditzen dena da identifikatuta dituzten beharrentzako ez dela lanketa nahikorik egiten.
- Curriculum dekretuko 3. eta 4. helburuak lantzeko orduan, hizkuntza ekologiak ekarpena egin dezakeela baieztatu egin da. Marko teorikotik ekarritako kontzeptu nagusiek bide luzea egin dezakete ikasgelako jardueretan, eta, gainera, maila desberdinetara egokitzeko aukera ematen dute, sakontasuna beharren arabera doituz. Ikasleari bere inguruko hizkuntzen ekosistema interpretatzen ikasteko baliabideak ematen dituela ondorioztatu da.
- Udalerrri euskaldunetako ikasleen gaitasunak lantzerakoan, testuinguru horretatik bertatik abiatzen den diskurtso batek lagundu egin dezake, eta arnasguneen ideiak bidea irekitzen du hizkuntza ekologiarekin zuzenean lotzeko. Bestalde, euskaldunen hizkuntz komunitateari begira, herri euskaldunetako gazteek etorkizunean jokatuiko duten lidergo papera ulertzeko bide aproposa izan daiteke.

Hizkuntza ekologiak egiten duen moduan, egoera aztertzeaz gain erantzuten saiatzea ere izan da lan honen hasierako asmoa. Hori horrela, gaur egungo egoeraren analititik ateratako ondorio eta beharrei erantzuteko baliabide didaktikoen irizpideak proposatu dira. Bidelagun izan diren hezkuntzako eragileek harrera ona egin diote proposamenari, baliagarri izango dela aurreikusi dute eta interesa agertu dute etorkizunean izan dezakeen aplikazioari begira.

**Udalerrri
euskaldunetako
ikasleen
gaitasunak
lantzerakoan,
testuinguru
horretatik
bertatik abiatzen
den diskurtso
batek lagundu
egin dezake.
Bestalde,
euskaldunen
hizkuntz
komunitateari
begira, herri
euskaldunetako
gazteek
etorkizunean
jokatuiko duten
lidergo papera
ulertzeko bide
aproposa izan
daiteke.**

**Metodologian
aurreikusitako
pauso guztiak
betetzeko
denbora mugatua
izan dela
aipatzea komeni
da. Hori dela-eta,
prestatutako
urratsik ez da
gelditu egin gabe,
baina
proiektuaren
mugagatik
gehiago sakondu,
ikertu edo landu
gabe gelditu
diren ildoak
identifikatu dira
bidean.**

Alabaina, egitasmoak emandako fruituekin itsutu ordeztu, beharrezkoa da ibilbidean aurkitutako mugak aipatzea ere. Ildo horretan, metodologian aurreikusitako pauso guztiak betetzeko denbora mugatua izan dela aipatzea komeni da. Hori dela-eta, prestatutako urratsik ez da gelditu egin gabe, baina proiektuaren mugagatik gehiago sakondu, ikertu edo landu gabe gelditu diren ildoak identifikatu dira bidean. Esate baterako, eskoletan lantzen dituzten testu-liburu guztien analisi sakona egitea gomendagarria litzateke abiatutako bideari jarraipena eman nahi bazaio.

Hain zuzen ere, egitasmo hau etorkizunean lan-ildo berriak eta ikastetxeetan aplikatzeko benetako proiektuak ekar ditzakeen abiapuntua dela ere argi gelditu da. Hona hemen, udalerrri euskaldunetako ikastetxeetan hizkuntza ekologia eta arnasguneen ideiarekin bidez soziolinguistikako gaitasunak lantzeko asmoa baldin badago, ibilbidea sakontzeko eta aberasteko balio dezaketen ildo estrategikoak:

- Berritzeguneek zeregin garrantzitsua joka dezakete zabalkunde lana egiterakoan. Hizkuntza Normalkuntzako mintegiarekin lankidetzan berriak ireki daitezke proiektu pilotuak lantzeko eta irakasleen formakuntzan aurrerapausoak emateko. Gizartean testuingurua etengabe eraldatzen ari den honetan, soziolinguistika gaitasunak lantzeko ere berrikuntzaren bidea jorra dezake hezkuntza sistemak ahalik eta modu eraginkorrean erantzuteko ikasleen beharrei. Zentzu horretan, ikerketa egin den eskualdeko berritzeguneak interesa agertu du datorren ikasturtera begira, baliabide didaktikoen proposamena Hizkuntza Normalkuntzako mintegian aurkezteko.
- Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea UEMA ere egitasmo honen garapenerako bidaide egokia izan daiteke. Hain zuzen ere, erakunde honek arnasgunetan ardaztutako pentsamendua eta praktikak biltzen dituen hezkuntza proiektua garatzeko asmoa dauka eskuen artean, eta hauek ere prestutasuna erakutsi dute sortutako materiala ezagutu eta baliatzeko.
- Ikastetxeetako aplikazioari begira, egitasmo honetako jarduerak zeharkakotasunez lantzea ere komenigarria izango litzateke. Lan hau Euskara eta Euskal Literatura ikasgaiko irakasleentzako proposamena egitera mugatu da, baina beste ikasgaietan lantzeko moduko edukiak direla ikusita, interesgarria litzateke gaitasun soziolinguistikokoak beste arloekin gurutzatzea, edota tutoretzako tartea erabiltzea horretarako. Aldi berean, Hizkuntzen Tratatua Bateratuak lantzen duen filosofiarekin bidetik, hizkuntz ekologiaren diskurtsoa eta pentsamoldea euskararekin bakarrik lantzea baino, egokiagoa

litzateke hizkuntza guztien artean lanketa integral bat bideratzea. Hala, hizkuntza hegemonikoen irakasleek ere (gaztelania, ingelesa eta frantsesa) ardura hartu dezakete udalerri euskaldunetako ikasleen ezagutza eta interpretazio gaitasuna hobetzen.

Aipatutako hiru ildo horiek garatzeko, etorkizunean egitasmo eta lan berriak abiatzea beharrezkoa izango da, bai arlo akademikotik unibertsitateko ikerketak bideratuz, bai esparru instituzionaletik hezkuntza sistemaren baitan bideak irekiz eta baliabideak jarriz, eta, azkenik, baita eremu sozialetik ere, gizarte erakunde eta elkarteekin lankidetzak eginez.

Amaitzeko, hain zuzen ere, lan honen egileak lankidetzaren ideia nabarmendu nahiko luke. Hizpide hartu diren hiru esparru horien arteko elkarlana erabat emankorra izan daiteke, euskararen normalizazioaren aldeko lanean antzeko interesak partekatzen dituztelako sarri. Argi suma daiteke irakasleek eta ikastetxeek bakarrik ezin diotela erantzun egoeraren konplexutasunetik eratorzen diren behar guztiei. Baina unibertsitateak, hezkuntzako eragileek eta gizarte antolamenduko erakundeek jositako sareak bidea eman diezaioke egitasmo bateratuak zentzuz eta indartsu abiarazteko asmoari. Harremanen ekosistema aberastuz gero, estrategiak arnasberrituko dira, eta egoerari baliabide eraginkorrekin emango zaio erantzuna. ●

BIBLIOGRAFIA

- Amorrortu, E., Barreña, A., Idiazabal, I., Izagirre, E., Ortega, P., Uranga, B. (2004). *Munduko hizkuntzei buruzko txostenaren laburpena*. Bilbo: Unesco Etxea.
- Barrieras, M., Granados, J., Vilaró, S., Junyent, C. (2000). *Guía didáctica del quadern ESO de La diversitat lingüística*. Barcelona: Ediciones Octaedro.
- Bastardas i Boada, A. (2005). *Cap a una sostenibilitat lingüística*. Barcelona: Angle ed./CETC.
- Bastardas, Albert (2009): *Soziolinguistika eta hizkuntza aniztasuna ekologia konplexutik abiatutako hurbilketa*. Hizkunea, Soziolinguistikako Agerkaria. http://www.euskara.euskadi.eus/r59-bpeduki/eu/contenidos/informacion/artik31_1_ekologia_09_05/eu_ekologia/artik31_1_ekologia_09_05.html (2015/05/01ean kontsultatua).
- Eusko Jaurlaritz (2009). *Euskara 21, itun berri baterantz*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritz (2013). *Programazio didaktikoak egiteko orientabideak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

- Fishman, J. (1973). The Ecology of Languages: Essays by Einar Haugen. *American Anthropologist*, 75 (4), 1078-1080.
- Fishman, J. (1991). *Reversing Language Shift*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Garabide Elkartea (2009). *Euskararen berreskuratzea. Hizkuntza biziberritzeko gako batzuk*. Agirrezabal, L. (koor.). Eskoriatza.
- Haugen, E. (1972). *The Ecology of Languages*. Stanford: Stanford University Press.
- Hurtado de Barrera, J. (2000). *Metodología de la Investigación Holística*. Caracas: Sypal.
- Iurrebaso, I. (2014). *Udalerri euskaldunak EAEn: egoera eta bilakaera, 1981-2011*. UEMA. <http://www.uma.eus/azterketak/> (2015-05-09an kontsultatua)
- Larrea, I., Bilbao. P. (2010). Hizkuntza politika eta hizkuntza plangintza. In *Soziolinguistika eskuliburua*, (5) 231-286, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra
- Marko, I., Uranga, B. (2014). Sobre la ecología lingüística en el País Vasco: visión de los agentes sociales. *Revista de Lengua i Dret*, 62, 73-85.
- Seguro, M. (2015). *Udalerri euskaldunen garrantzia euskararen normalizazio prozesuan*. (Lurraldea eta Hizkuntza II. Jardunaldietako hitzaldia; antolatzaileak GFA, UEU, Kontseilua eta UEMA). <https://www.youtube.com/watch?v=FJvvMNI4B-E> (2015-05-02an kontsultatua).
- UNESCO. *Kultur-aniztasunari buruzko Unescoren adierazpen unibertsala* (2001). Paris: Unesco.
- Vitalidad y peligro de desaparición de las lenguas. (2003). Paris.
- UNPO (2015) *Language, Identity and Power: What future for minority languages in Europe? Briefing note*. Brusela. <http://unpo.org/article/17979> (2015/05/01ean kontsultatua).
- Uranga, B. (2011). Hizkuntza-ekologia. Ekologia-biologia eta hizkuntza-ekologiaren arteko joan-etorriak. *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 81, 25-50.
- Uranga, B. (2011). *Zergatik hizkuntza ekologiarekin bat? Azpeitia*. (Hizkuntza ekologia eta lurralde euskalduna jardunaldietako hitzaldia; antolatzailea UEMA). <http://www.soziolinguistika.eus/ganbara/bideo/player5.php?id=3> (2015-05-03an kontsultatua).
- Vork, S., Alwin, F. (2014). Ecolinguistics: the state of the art and future horizons. *Language Sciences*, 41, 6-25.
- Zalbide, M. (2014-08-02). Formulazio berria posible eta egoki da. Berria. 3.446 zenbakia